

**Espediente mota: Administrazio kontratazioa**

**Kontratua:** Bermeoko Udaleko osasun zaintza eta higiene industrialeko espezialitateak eskaintzeko zerbitzu kontratua, prozedura negoziatuaren bidezko esleipena.

**Espediente zenbakia: 2014-60**

---

**BERMEOKO UDALEKO OSASUN ZAINZA ETA HIGIENE  
INDUSTRIALEKO ESPEZIALITATEAK  
ESKAINTEKO ZERBITZU KONTRATUA  
ADMINISTRAZIO - BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK  
PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZKO ESLEIPENA**

## **1.- KONTRATUAREN HELBURUA**

### **Xedea:**

Kontratu honek helburua Bermeoko Udalean laneko arriskuen prebentzio arloko osasun zaintza eta higiene industrialaren espezialitateen zerbitzua eskaintzea.

### **Modu hertsian:**

Kontratu honen helburua lortzeko, laneko arriskuen prebentzio arloko osasun zaintza eta higiene industrialaren espezialitateen zerbitzua esleituko da, kontuan edukita esleipendunak kreditatutako Kanpoko Prebentzio Zerbitzua izan beharko dela.

Zerbitzu kontratu honek Bermeoko Udaleko langileria babestu beharko du. Guztira 200 langileentzako zerbitzua bermatu beharko da eta honetarako ARRISKU - Laneko Prebentzio Zerbitzuaren aholkularitza eta laguntza edukiko du.

## **2.- OSASUN ZAINZA ARLOAN ESKEINI BEHARREKO ZERBITZUA**

Jarraian Osasun Zaintza jardueretarako zerbitzuak zeintzuk diren zehaztuko dira.

Oro har, *mediku azterketak baldintza honetan egin beharko dira:*

- Lanera sartu aurretik edo osasunerako bestelako arriskuak dituzten zeregin berrietan hasi aurretik, langileen osasunaren hasierako ebaluazioa.



- Osasun arazoak direla-eta luzaroan (3 hilabetetan) lanera etorri barik egon ostean lanera bueltatzen diren langileen osasunaren ebaluazioa, gaixotasunen jatorri profesionalak zein diren jakiteko eta langileak babesteko ekintza egoki bat proposatzeko.
- Osasuna aldizka ebaluatzea (urtean behin). Aldizkotasuna arrisku jakin batzuetarako zehaztuta dago eta derrigortasun izaera dute, gainerakoak, Osasun Zaintzako Unitateak erabakiko ditu.
- Arrisku espezifiko batzuei ere, besteak beste, agente biologikoei, minbizisortzaileei eta bistaratzeko-pantailei osasun ebaluazioak egin daitezke baldintza hauetan:
  - Esposizioaren aurreko mediku ebaluazioa; zirkunstantziala, derrigorrezkoa, antzeko esposizioaren batean, eta esposizio horren erruz, langileen bati osasunerako kalteren bat antzeman bazaio, eta esposizioaren edo kontratuzko hartu-emanaren ostean beste bat.
  - Gaixotasun profesionalerako arriskua duten lanposturen bat beteko duten langileek mediku azterketa egin beharko dute onartu aurretik eta, onartu ostean, laneratzean aldizkako azterketak egingo dituzte, laneko agintaritzak edota osasun agintaritzak gaixotasun mota bakoitzerako ezarritako protokoloak, hain zuzen ere.

## **2.1. Zerbitzua emateko alde aurretik hartu beharreko neurriak eta planifikazioa burutzea**

- Esleipendunak, laneko gaixotasunei edota lan istripuei aurre hartzeko neurri mediku-higieniko-sanitarioak proposatuko ditu eta dagokion plangintza egingo du.
- Osasun Zerbitzuaren langile sanitarioak udaleko langileen artean izaten diren gaixotasunak ezagutuko dituzte, baita osasun arazoagatik lanean geratzen diren absentismoak ere.
- Guzti hori, lantokian egon daitezkeen osasunarentzako arriskuen eta gaixotasuna edo absentismoaren arteko loturarik dauden jakiteko.
- Osasun azterketatan lan eta osasun historiala sartuko dira. Lanpostuaren deskribapena zehatza egingo da, lan baldintzetan ikusi diren arriskuak eta ze neurri hartu den ere zehaztuko da.
- Langilea zein lanpostuetan egon den lehenago ere agertuko da, zelako arriskuak izan zuen eurretan eta zenbat denbora egon den lanpostu bakoitzean.



- Patologiaren eta istripuen arloan ere, langilearen eta haren familiaren aurrekariak agertuko dira mediku azterketetan.
- Langileen osasunari buruzko datu guztiak isilpekoak izango dira eta mediku zerbitzuaren artxiboan erregistratuko dira informatikoki.
- Zerbitzuko langile sanitarioek langileen osasuna zainduz lortu diren emaitzak aztertu beharko dute eta arriskuak ebaluatu, irizpide epidemiologikoak kontuan izanda. Zerbitzuaren beste kideekin lankidetzan, laneko arriskuen menpe egotearen eta osasunak izan ditzakeen kalteen artean loturarik dagoen jakingo da eta lanaren ingurumen eta baldintzak hobetzeko neurriak proposatuko dira.
- Osasun Zerbitzuaren langile sanitarioek aztertu eta baloratu egingo dute, bereziki, umedun edo oraintsu umea eduki duten emakumeak, sentiberak diren langileak, eta beharrezkoak diren prebentzio neurriak proposatuko dute.
- Ekintza honetatik abiatuta eta esleipendunak ezarritako protokolo eta prozeduren bidez, osasuna kontrolatu eta zaintzeko zerbitzuaren mediku taldeak, ARRISKU - Laneko Prebentzio Zerbitzuarekin koordinatuko dute bere ekintzak beste prebentzio espezialitate teknikoekin.
- Urteko memoria txostena egingo da, eta, bertan agertuko da, osasun zaintza arloan egin den guztia.

## **2.2. Esleipendunak osasun zaintzan bete beharreko oinarrizko irizpideak:**

- Osasun zaintza laneko arriskuen prebentzioaren oinarrizko osagaia izan beharko da.
- Osasun zaintza lan-medikuntzaren osasun jardueren orientazio desberdina suposatuko du.
- Ez da asistentzia jarduera bat bakarrik izango.
- Indibidualtasuna eta kolektibotasuna batu beharko ditu.
- Langileen osasunaren promoziorako elementua izango da.
- Arriskuen araberako protokolo espezifikotik oinarrituko da.
- Langileen intimitatea eta osasun informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu eta bermatu beharko ditu.
- Ez du lan diskriminaziorik sortuko.
- Ezin izango da absentismo kontrolarekin erratuko.



- Independentzia profesionala bermatuko du.

### **2.3. Zerbitzua emateko egitura eta zereginak:**

Osasun Zaintzako Zerbitzuan, gutxienez, langile bi egongo dira, Laneko Medikuntzan aditua edo Enpresako Medikuntzan titulatu den osagile bat eta unibertsitateko Erizaintzan titulatu den beste bat.

Zereginen artean, hauek edukiko dituzte:

- Bermeoko Udaleko langile bakoitzak dituen arrisku espezifikoak identifikatzea. Horretarako arriskuen ebaluazioa hartuko da kontuan, Laneko Prebentzio Zerbitzuko gainerako kideekin eta langileen ordezkariekin lankidetzan.
- Mediku azterketa espezifikoaren protokoloak lantzea eta gauzatzea; beti ere, antzemandako arriskuen arabera. Baldin badaude, Osasun Ministerioak osasuna zaintzeko dituzten protokolo espezifikoak erabili beharko dira.
- Osasun zaintzako programaren menpe, euren borondatez, jartzen direla dioen eskabidea eta dokumentazioa.
- Langileari zehatz eta argi ematea mediku azterketaren emaitzak.
- Emaitzen eta osasun informazioaren sekretutasuna eta konfidentzialtasuna gordetzea eta bermatzea.
- Langileak bere lanposturako duen gaitasuna zehaztea, mediku azterketaren arabera, eta udalari jakinaraztea gai edo ez gai den zehaztuta. Era berean, babes eta prebentzio neurriak ezartzeko beharizanik dagoen jakinaraziko zaio Bermeoko Udalari.
- Langileak intimitaterako eta duintasunerako duen eskubidea errespetatzea.
- Langileei eragozpen txikiak eragiten dizkieten mediku probak egitea eta arriskuekin proportzionalak izatea.
- Langile bakoitzaren historia klinikoa eta lanekoa edukitzea, baita langileen osasun egoera zehazteko kontrolei eta lorturiko emaitzei buruzko dokumentazioa ere.
- Arrisku bereziko taldeak babestea, besteak beste, arrisku jakin batzuen aurrean ahulagoak diren langileak, sentibera berezikoak direnak edo umedun dauden emakumeak.
- Langileen osasun egoeraren emaitzen analisisen berri ematea Bermeoko Udalari, irizpide epidemiologikoak kontuan hartuta.



- Gaixotasunagatik lanera ez etortzeak aztertzea, ez etortzeen eta laneko baldintzen arteko hartu-emanak identifikatzeko asmoz.
- Mediku azterketen ostean txertoak ezarri behar badira ikusten bada, txerto programak planifikatzea eta burutzea.
- Bermeoko Udaleko langileen baitan informazioa eman osasuna sustatzeko.
- Laneko Osasuneko Informazio Sanitarioko Sistema mantentzea jarduera eremuan.
- Kanpoko prebentzio zerbitzuko urteko prebentzio ekintzen plangintzan osasun zaintzako jarduerak sartzeta eta koordinatzea.

#### **2.4. Gutxienez ezarri beharko diren mediku protokolo espezifikoak**

- Jarrera Bortxatuak
- Kargak eskuz manipulatzeko
- Datuak Bistaratzeko Pantailak
- Gidatzea
- Zaratak
- Dardarak
- Eragile Biologikoak
- Mugimendu errepikakorrak
- Txandaketa / Gauekotasuna
- Altueretan lanak
- Lan Dermatosia
- Arnas Sumingarriak
- Amiantoa (Potentzialki Ez esposaturikoak)
- Laneko Asma
- Silikosisia eta beste neumokoniosiak
- Plagizidak
- Erradiazio ionizatzaileak
- Beruna

Osasun Ministerioak onartutako mediku zaintza espezifikoko protokolorik ez badago, osasun zerbitzuak erabilitako irizpideak eta prozedurak zehaztu egin beharko dira.

#### **2.5. Langileen osasuna ebaluatzea:**

##### **2.5.1. Mediku azterketak langilea lanean hasi aurretik:**

- Azterketa mota hauek betetzeko zerbitzua, Bermeoko Udalak dituen izaeragatik, berehalakoak izan beharko dira, deitzen den egunetik hurrengo



egunera (gehienez jota bi eguneko epearekin). Kontuan izan behar da langile kopuru txikia izango dela eta udalaren beharrezko berehalakoa izaten dela, beraz, epe hau zerbitzuaren barnean bermatu beharko da.

- Azterketa honen **zati orokorra** langile guztientzako berdina izango da; osasun sistema eta aparatuak aztertuko zaizkio era honetara:
  - Bihotza eta birikiak auskultatuko zaizkio.
  - Sabelaldea aztertuko zaio.
  - Bizkar-hezurra eta artikulazioak.
  - Tentsioa, pultsua eta beste konstanteak hartuko zaizkio.
  - Azterketa biometrikoa egingo zaio.
  - Odola eta gernua ere aztertu egingo dira.
  - Birikien arnasketa-ahalmena neurtuko zaio.
  - Etzanda dagoela egingo zaio bihotzeko elektrokardiograma.
  - Entzuteko gaitasuna neurtuko zaio.
  - Ikusmena aztertuko zaio.
- Azterketa honen **zati berezia** langile bakoitzak bere lanpostuan duen arriskuen arabera egingo da. Lanpostu bakoitzean zelako arriskuak dauden jakin ezker dagozkion protokolo espezifikoak aplikatu zaizkio lanpostu bakoitzari (bai administrazioak garatuak, zein mediku zerbitzuak garatuak eskura dagoen bibliografia eta batutako esperientzia kontuan izanda).
- Osasun azterketak egin ondoren langilearen gaitasun txostenak sortuko dira eta informazioa ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bideratuko da.
- Azterketa honen emaitzak eta gomendio zabalagoak, mediku azterketako txosten batean langilea berari emango zaizkio, beti ere konfidentzialtasuna bermatuz.

### ***2.5.2. Osasunerako bestelako arriskuak dituzten zeregin berrietan hasi aurretik egin beharreko mediku azterketak***

- Lanpostu eta eginkizun berriak dituzten arriskuak kontuan izanda protokolo espezifikoak aplikatuko dira, kasu berean, langileak horretarako daukan gaitasuna egiaztatuz edo ziurtatuz. Gaitasun txostenak ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bidaliko dira.
- Era berean, eta langileari egin zaion azken azterketa orain urtebete baino lehenago egin bada, azterketa orokor bat egingo zaio, sistema eta aparatu guztiak aztertuz, odola eta gernua ere bai, arnasa hartzeko gaitasuna neurtuko zaio erretzailea balitz edo izan bada (orain 12 hilabetetik honantz) eta elektrokardiograma etzanda dagoela, 45 urtetik gorakoa bada.



- Osasun azterketak egin ondoren langilearen gaitasun txostenak sortuko dira eta informazioa ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bideratuko da.
- Azterketa honen emaitzak eta gomendio zabalagoak, mediku azterketako txosten batean sortuko dira, ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bideratuko dira eta langilea berari emango zaizkio, beti ere konfidentzialtasuna bermatuz.

### ***2.5.3. Osasun arazoekin luzaroan egon eta gero (gutxienez 3 hilabete), lanera itzuli diren langileak ebaluatzea.***

- Langile hauek sartu berri modura hartuko dira mediku zerbitzuaren eraginetarako eta langileari azterketa orokorra eta espezifikoa egingo zaio.
- Lanetik kanpo utzi zuen prozesuak langileen osasunaren gainean ondorioak utziko balu, baloratu beharko da bereziki.
- Osasun azterketak egin ondoren langilearen gaitasun txostenak sortuko dira eta informazioa ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bideratuko da.
- Azterketa honen emaitzak eta gomendio zabalagoak, mediku azterketako txosten batean sortuko dira, ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bideratuko dira eta langilea berari emango zaizkio, beti ere konfidentzialtasuna bermatuz.

### ***2.5.4. Osasuna aldizka kontrolatzea.***

- Urtean behin egingo dira azterketak eta derrigortasun izaera izango dute.
- Langileari dagokion lanpostuaren arriskuen arabera protokolo espezifikoak aplikatuko zaizkio eta langileen osasun sistema eta aparatu guztiak aztertuko dira. Odol eta gernu azterketak borondatezkoak izango dira, erretzaileak diren edo orain 12 hilabete baino gutxiago erretzaileak izan direnei, arnasa hartzeko gaitasuna neurtuko zaie, eta 45 urtetik gorakoei bihotzeko elektrokardiograma egingo zaie etzanda daudela.
- Osasun azterketak egin ondoren langilearen gaitasun txostenak sortuko dira eta informazioa ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bideratuko da.
- Azterketa honen emaitzak eta gomendio zabalagoak, mediku azterketako txosten batean sortuko dira, ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bideratuko dira eta langilea berari emango zaizkio, beti ere konfidentzialtasuna bermatuz.



- Aldi berean, aldizkako mediku azterketak eman duten emaitza orokorrak Bermeoko Udalari jakinaraziko zaizkio eta gomendio mediku-higienekoak proposatuko dira urteko txosten batean.

## **2.6. Lan gaitasun mailak**

Esleipendunak langile guztien lan gaitasun txostenak bideratuko ditu goian ezartzen diren mediku azterketak egin ondoren eta Bermeoko Udalari komunikatuko dio langileak dituzten lan gaitasun mailak (GAI, EZ GAI, GAITASUN BEHAKETAN, GAITASUNA BALDINTZATUA,..).

Langileen lan-gaitasunak Bermeoko Udalara bidaltzeko denboraren ezarpena zerbitzu kontratu honen esleipeneko hobekuntzarako puntuaketatan baloratuko da.

## **3.- HIGIENE INDUSTRIALAREN ARLOAN ESKEINI BEHARREKO ZERBITZUA**

Jarraian Higiene industrialaren jardueretarako zerbitzuak zeintzuk diren zehaztuko dira:

- Produktu kimikoak biltegitzeko estudioa egitea, topatzen diren bateraezintasunaren informea burutuz eta biltegitzeko beharrezko diren neurri egokien proposamenak eskainiz.
- Lanpostuen eta zereginen analisiak egitea, gaixotasun profesionalen arrisku ebaluaketa egiteko zioaz.
- Langileen osasunaren aurka jo dezaketen osagai guztien lagin-hartzeak egingo dira, erabiltzen diren produktuen segurtasun datuen fitxak kontuan hartuz, langileen esposizio mailak indarrean dagoen araudian agertzen direnarekin egokiak diren baieztatzeko.
- Lanpostu ezberdinetan egon daitezkeen arrisku biologikoak, arrisku fisikoak eta arrisku kimikoen detekzioa, neurketa eta beharrezko diren neurriak aztertzea.
- Erabili behar diren norberaren babeseko ekipoen eta prebentzio neurriei buruzko gomendioak.
- Lanpostu ezberdinetako langileriarri arrisku higienikoen prestakuntza ematea eta kasu bakoitzean beharrezko diren neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Beste prebentzioko espezialitateekin batera, ekintza prebentibo integratuaren diseinua egitea.





- Aldizkako batzarrak egitea eta txosten ezberdinak gauzatzea.

**Planteatutako lan metodologia:** planteatutako lan metodologiak laneko baldintzen hobekuntzen sustapena izango du helburu, beti ere langileak lanean euren segurtasun eta osasunaren babes maila hobetzeko zioaz.

- Higiene arloko prebentzio jarduera planifikatu beharko da.
- Higiene arloan langileei eta zuzendaritzari sentsibilizazio sesioak eman.
- Arrisku biologikoei buruzko neurketak burutu, informazioa eta formazioa eman langileei (lurperatzailea eta sastar batzeko lanpostuetan).
- Arrisku fisikoei (zaratak eta dardarak) buruzko neurketa burutu, informazioa eta formazioa eman langileei.
- Arrisku kimikoei (agente kimikoak eta amiantoa) buruzko neurketa burutu eta informazioa eta formazioa eman langileei.
- Higiene arloari buruzko prebentzio jardueren memoria garatu eta beharrezko diren neurri prebentiboak ezarri.
- Osasun zaintza eta kontrolerako kudeaketak burutu.
- Osasun zaintzari buruzko prebentzio jardueren memoria garatu eta beharrezko diren neurri prebentiboak ezarri.

#### **4.- PRESTAKUNTZA**

Kanpoko prebentzio zerbitzuko enpresak lan arriskuen prebentzio arloko prestakuntzarako jarduerak eskaintzeko homologatuta egon beharko dira, Eraikuntzako Sektorearen V. Lan-hitzarmen Orokorrean eta lan arriskuen prestakuntzarako jardueren homologazioaren mantentzerako Baldintzen Araudian ezartzen den arabera.

Ahala eta guztiz ere, esleipendunagatik eskainiko den prebentzio prestakuntza Lan Arriskuen Prebentzioko Legediaren 19. artikulua bermatu beharko du.

#### **Lanpostuko prestakuntza prebentiboa**

Lan arriskuen prebentzio arloko prestakuntzaren helburua ez da bakarrik langileak jakitea bere eginkizunetan zer eta zergatik egin behar dituen lanak, baizik eta jakitea zelan eta ze baldintzatan burutu behar dituen lan horiek. Hor dago trebakuntzaren garrantzia, jakitea gauzak egiten egiteaz.



Beraz, prestakuntza ez da bakarrik arriskuak ezagutzea eta ze neurri ezarri behar diren eurak kontrolatzeko, baizik eta langileek ulertzea euren arteko erlazioa, horien neurrien justifikazioen eta ezarpenen motibazioa sustatzea.

Langilea trebatua izan beharko da bere lanpostuan dauden arriskuak kontrolatzeko ematen zaizkion bitartekoen, laneko ekipoen, norberaren babeserako ekipoen eta babeserako ekipo kolektiboen erabilera egokietan.

Trebakuntza saio hauetako edukiak langileen lanpostuan dauden arriskuen ebaluaketan eta bere lanpostuko eginkizunetan oinarrituta egon beharko dira eta erakundeko lan guneetan emango dira.

Lanpostuetako arriskuak kontrolatzeko langileen prestakuntza prebentiboa ezinbesteko tresna da eta istripu kopuruen gutxitzean eragin zuzena du eta horretarako prestakuntza teoriko eta praktikoa izan behar da.

Beharrezkoa da beraz, esleipendunak prestakuntza programa modalitate ezberdinak eskaintzen dituela aurkeztea. Prestakuntza egokitua eta malgua izan behar da, erakundearen beharrezkoak egokitua eta langileei prebentzio ezagutzak eskaintzea konpetentziak eta kualifikazioak hobetzeko helburuaz.

Esleipendunak eskaintzen dituen prestakuntza programetako saio kopuruak zerbitzu kontratu honen hobekuntza bezala baloratuak izango dira dagokion puntuaketa emanez.

## **5.- AURKEZTEN DIREN ESKAINTZAK EDUKI BEHARREKO GUTXIENENKO EDUKINA**

- a) **Administrazio publikoarekin egindako lanen zerrenda**, Baliabide tekniko eta pertsonalak, baita kanpoko prebentzio zerbitzuko enpresa lan arriskuen prebentzio arloko prestakuntzarako jarduerak eskaintzeko homologatuta dagoenaren ziurtagiria.
- b) **Eskaintza ekonomikoa**: Esleitzen den zerbitzuaren eskaintza ekonomikoen prezioak batera aurkeztu beharko dira.
- c) **Proiektuaren antolaketa zehatza**: Lan metodologia, plangintza eta antolaketa egitura.
- d) Esleitu beharreko **zerbitzuaren ekintzen plangintza**.
- e) Kontratua burutzeko **izendatutako pertsonaren izen abizenak**, telefonoa, fax zenbakia eta e-maila: enpresaren eta Udalaren arteko eguneroko hartu emanetarako kontaktua hain zuzen.
- f) Eskaintzen balorazioa egiteko gainontzeko agiriak.



**a) b) c) eta d) ataletan eskatutako agiriak aurkezten ez badira, eskaintza ez da kontutan hartuko eta baztertuta geratuko da. f) atalekoan aurkezten ez badira, ez dira arlo horretakoak baloratuko.**

## **6.- ESLEIPEN ERIZPIDEAK**

Esleipen irizpideak hauek izango dira:

- 1. PREZIOA: 60 PUNTU**
- 2. HOBEKUNTZAK: 40 PUNTU**

### **a) PREZIOA:**

Eskaintza bakoitzaren puntuaketa lortzen da, eskaintza baxuena eta baloratzen den eskaintzaren arteko zatiketarik sortzen den koefizientearekin, irizpidean eman daitezkeen puntuekin biderkatuz. Hau da:

**[Ob/OI] x 60**

Ob: eskaintza baxuena.

OI: baloratzen den eskaintza

60: prezioagatik eman daitezkeen puntuak gehienez.

### **b) ZERBITZUAN HOBEKUNTZAK:**

Esleipendunak mantentze zerbitzu honetan eman daitezkeen hobekuntzak planteatuko ditu eta honen gainean Administrazioak, zerbitzuan proposatzen diren hobekuntzen egokitasuna baloratuko du, bai legediari, bai funtzionamenduari dagozkionez.

### **Ondorengo arloetan baloratuko dira hobekuntzak:**

- Azterketa medikuak Bermeon egitea. **10 puntu**
- Azterketa medikuak homologatutako osasun zentro batean egitea eta ez unitate mugikor batean. **5 puntu**
- Medikuaren hitzorduak berehala ematea (zehaztu denbora). **5 puntu**
- Langileen lan-gaitasunak ahalik eta arinen edukitzea (zehaztu denbora). **2 puntu**
- Neurketa higienikoen urteko kopurua (kopurua zehaztu). **5 puntu**



- Prestakuntza eta informazio saioak eskaintzea (urteko kopurua zehaztu). **6 puntu**
- Teknikoen bisitak planifikatzea (urtean zenbat bisita). **7 puntu**

Hobekuntza hauetan ez da puntuaketa partzialik emango, puntuaketa osoa emanda edota punturik eman gabe baloratuko direlarik.

## **7.- HIZKUNTZA ERIZPIDEAK**

Bermeoko Udalean ezarrita dagoen Hizkuntza erabileraren planaren arabera, esleipen honetan eskatzen diren kanporako komunikazio guztiak **euskaraz** egon beharko dira.

Mota guztietako mediku azterketak, zein ebaluazioak euskaraz egingo dira; horietatik eratorriko txosten eta abarrak gutxienez euskaraz edota euskarari lehenetasuna emanda egingo dira.

Higiene industrialaren inguruko ikerketak, txostenak, prebentzio jardueren planifikazioak, memoriak... euskaraz egingo dira eta arlo honetan esleipendunak eskainiko duen informazioa eta formazioa, salbuespenak salbuespen, eskaraz izango da bai ahoz, zein idatziz.

Esleipendunak egiten dituen proposamen, plangintza, gaitasun txostenak... zein kontratu honen xede den gainontzeko guztia euskaraz bideratuko da bai ARRISKU-Laneko Prebentzio Zerbitzura, zein udalera.

## **8.- ORDAINKETA MODUA**

Administrazio baldintzetan 5. puntuan adierazitakoaren arabera.

## **9.- ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHARRAK**

- Proiektuaren hasierako planteamendua behin Bermeoko Udalarekin adostuta idatziz aurkeztu beharko da.
- Lan harremanak euskaraz izango dira.
- Bermeoko Udalak titularitatea, zuzendaritza eta ikuskapen ahalmenak mantenduko ditu, eta horren arabera eskubidea izango du, enpresa esleituak, Bermeoko Udalarekin hartu emanak edukitzeko bideratutako pertsonak prestatzen duten zerbitzuekin desadostasunak egonez gero, bere beharra egoki egiten ez duelako edo eta euskaraz moldatzeko arazoak dituelako, beste pertsona barri bat eskatzeko, beti be lanaren prestatze egokitasun eta trebeziaren arabera.



- Konfidentzialtasuna: Enpresa esleituak, proiektuaren gauzapenerako Bermeoko Udalak bideratutako informazio eta dokumentazio guztia konfidentzialtasun osoz erabili beharko du beti be, abenduaren 13ko Datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa eta Fitxategi Automatizatuetan bildutako datu pertsonalen Segurtasun Neurriei buruzko ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak ezarritakoak kontuan hartuz.

Bermeon, 2014ko otsailaren 18an

